




Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Esteban Urkiaga
Lauaxeta



Gida-txakurrak



Izadia zaindu IV.



Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2012-2013 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 45. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 8an

45. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 8 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, VI.



Erri batetik bestera ibiltzen diardogu, eta non gelditu eztagigarik, Zizero deritxon errixaka kazkarrean egoan Elizan artu genduan egonlekua. Jatekorik gitxi, edateko egarriarik ez eta dirua ugari geukan. Emon genduzan egunetan, bertako egin gintzazan da, dirua ugari izanik, ondoko errian egiten zan abelgorri azokara joan, txala erosi, ekarri eta il, eta ok egiñarte bete gintzazan.

Arratsalde batean, berandu bazkalduz gero, Bilbo-tik Santander-erako bidean jatsi gintzazan zer edo zer ikusi gurarik eta bide batean etozan gudariak non ikusi genduzan. Santoñarako bidean. Batzuek negarrez, alairik iñor ez, izkiluak asko sasira jaurtirik, arrian jota apurturik. Etsindurik eta gogo txarrez danak etoña.

Santoñaratu gintzazan baiño lentxoago, loturik egozan preso fazistek askatuak izan ziran, Padurako gudariak alantxe gura ta. Euskal ikurriñak nainon agiri ziran. Gizon morrosko ederrak amorrizko negarretan, iñork, ez gizonezko itzik, dana zan gorrotoa.

Motorrezko, igiridunezko italiarra sartu zan lenngo, Santoñara, txapela, besoen goiak eta eskumuturrak izarrez dizdiz egiten eutzela. Agur egizkuen danori, eta beragaz batean atzean etozan italiarrak txera azaltzen euskuen, geugaz geukazan pistolak diruz, edo ta jakiz erosi naiaz.

Italiarrak aratu ziran baiño lenago, gengoza erdiak eta zazpi, erdi zoraturik genbiltzazan arrai ontzien beteaz jabetu gurak eraginik, artu, jabetu, bururatu, egin barriro lurrera. Italiarrak etorriz gero, ontzi andi batean sartu gintzazan, baiña geiegi gintzazelarik edo, ez ginduzan itxi joaten.

Zer egin geikean areik izan ziran ordu larrietan? Gudaria baño besterik ezanak, ez eukan aldendu bearrik, eta etxera joatean ez eukan Francoren alde ez aurka, txispea barriz artzerik, bizia ta lana zor jakozan da. Olako itz zoriontsuz bustiten ginduez, egunean egunero. Gero ikusi ber zan, ateosteko makilla.

Gudari izan gintzazanok eta geure gurariz, Francoren aldetik Errepublikara iges egin genduanok, edo ta beste zerbait izan ziranentzat, ebatziak ziran ondo ta gizonki artu bear ginduzenak, eta artzeko toki bereziagorik, Dueso-ko espetxe lakoa, non?

Seven Sea Esprey zan niretzazko ontzia, eta beste batzuen Bobie. Barruraturik gengoza, lurreratu, italiarrak zaindurik danok eroan ginduezan, Dueso-ra.

Dueso-n, gelarik gelara nor zer nai eban jakiten ibilli ziranak, atzilotuak, geure lagunak ziran; batzuek eurentzat dana amaiturik egoa ta, etxerako gerturik; beste asko ostera, igeserako irakitzen.

Itaunetan eta itxaroten, itxaroten eta itaunetan bosten bat egun igaro genduzan, italiarren eskupean. Italiarrak oso begiko izan jakuzan. Goiz batez baña, an non ikusi genduzan españar jagolek, eskuan abar bategaz, mundu onetako aunditasuna



eskuan ebalarik. Kopet txordoak ziran, begitartea illun, an gengozanai belarrondoko euliak kentzeko gertu. Oneik ikustean, eta italiarrik ez, larri ta erdirik izan gintzazan, gutzaz zer izango eta zan. Egun garratzak, egun gorriak, egun latzak itxaroten genduzan. Jagolekaz batera samar teniente antzerako batzuk be be, etorri jakuzen, geunkazen onak eta txarrak, autortu arazotera. Bakoitxa bere gelan ezarririk, eta aldian bateri barrura deiturik..., a zan larrialdia, a bai ba zala, estukurea!

Barruan autortzari eragionean, ateen aurrean genbiltzan atzera-aurrera egurasten da, Sarasola, nire guda sallean nagusiak itun egiztan, zer esateko asmoa neban galdetuz. Eta berari: Lenengo ta beñen, Mola-ren artaldetik Errepublikaren alderdiera iges egiña nintzala.

Burutik galdurik nengoan, goitik bera zoraturik, Sarasola izan zan burupideta kendu eustana.

Barrurako deian, asuria banitz barrenaratu nintzan. Autorrentzulea ta autorlaria, aurrean Kristo ta Ama Birginik barik gagoz. Ni pekatari eta Jesuskristo gure Jaunik otoitu eztodanarren, ez-nau gogorkeriz artu.

Berak: Zeure gogoz ala indarrez ibili izan zara?

Nik: Neure gogoz.

Berak: Eta, non ibili izan zara?

Nik: Gipuzkoan da Bizkai-n

Berak: Zer izan zintzan

Nik: Lenengotan gudariutsa, teniente azken batean.

Berak: Zergaitik teniente egin zinduezan?





Nik: Ogibidez ortarako inoz ez egon da, bat edo batek izanbear ebalako.

Berak: Zeinbat irabasten zenduan?

Nik: Onenbesteko bat, (au idazten diardutanean eztaikit eta.)

Berak: Erre al zendun elizarik, lekaide-lekaimetxerik ondatu aske zana giltzaperatu, eta inor bortxatru?

Nik: Ez Jauna.

Berak itaunduai nik erantzunaz bete ebanean orria, eskuratu eustan da, nik irakurri, ondo egoala ezan, izenpetukitu.

Neu lez, eta ni beste lez, eundak eta eundak izan gintzazan autorketa egin genduanak; Lekaide ta abade, osagille, asmatza eta besolangille, jakintsu ta jakige, danok gintzazan edea batzuekaz lotuak, akuluz zulatuak.

Egun tartako izanik, taldeka ogei, ogetamar deitu ginduzan, auzipera, ziranak eta ez ziranak entzun eta entzun egitera.

Orain zalatari zana, gero, urrengo taldean, aldezko izaten zan, eta aldezko zana, salatari, salatari egiten zan. Ipuin potagarik, non ikusi ta entzun! Maiko izan ziranak, zur eta arretaturik batzutan, lo bere, neke andirik barik.

Zeri edo ari, ekin da ekin egiñik, zer ezatekorik dogu itaundu ginduzanean, Azkue jaunak jakin nai

ebena zera ze, ituna italiarrakaz egiñik geunkalarik, italiar barik epaitza zergatik eta zertarako zan.

Maiko nausiak, orduan: Emen eztago italiarrik, danok gara NAZIONALAK. Bide ori ba dozu, gaiki zatorkidaz. Olaxe amaitu zan, gure buruzaintza, beste inoren txitik gabe.

Talde bakoitxetik bost, zazpi, amar...bere aldiko katepera, eta enparauak, eriotzara "Kruzadoi" izan ziran da, kruzados izateari eskerrak, izan ezpaziran, ipernura giñoazen bizi-bizirik.

Epaiketa amaiturik, izan genduan baratzer, lagunartera bialdu ginduezan eta gu irripartsu, epaiaren barriak jakinarazoten, lagunai. Eundak eta eundak gintzazen zigor arekin lepoa makurtu euskuenak.

Goizetan abea jaso, arratsbean beratu, españar ikurriña izaten zan lenengo lana ta eginbearra, espetxeko nagusiekaz batean; an joiazan lotuak ere, ikurriñari "otoi-egitera". Lotuen artean bat egoan zauritua, usteltan, arrak jaten ebana. Gudari gaixo-gaixoak, ikurriña jasotzean, "biba la Republika eta gora Euskadi askatuta" inoazan, zaurietatik bein betirako askatzeko, afrunturik naikoa eta geiegi nabaitzen eben da. Biramón goizean zulatu eben laguneren artan, ikurriñaren azpian, goraka ta bibaka Errepublikari ta Euzkadiri. Atzilotuak izan gintzazenetik lenengo eriotza eta, galiziarra zala uste dot.

Epaituak izatean, zazpi sartu ginduezan gein ba-koitzean geure-geureak ziran zeregiñak egiteko ezer ezegoan lekuetan.

Piti batean irikiten euskuen atea zergeiñak egiguzan. Bizarririk ibilli bear genduan, zorri andi-andiek be, orduantxe kentzen genduzan da.

Gosaltzeko ontza bat txokolate, eta txokolaterik ez egoanean akeitaren margozko burduntzali bete salda. Eberdietan, barriz, piper-txolet bete indaba zuri, eta indabarik ez egoanean, txitxirio gitxi batzuk, salda gitxirenartean. Emoten euskuena, ta ogia, bazkaltzeko ta apaltzeko izaten ziran.

Amorrotu arazoten ginduzan goseak, gelakide bateri asmoa bururatu jakon, gosea auldu genkian zerbait egin bear zala.

Gure aurretik, fazista presoak bertanbera itxiko txixontzia geunkan, eta giltzadunak, au bere atxilotua, ekarten euskuzan zotzak eta abarrez, sua-egini egosten genduan goizeko txokolatea eta, baba zuriak, ur salda andien tartean.

Kazkarreko batzuk ba eukazan pixontziak, eta ondo garbitzeko gatxa ta zaila ezanagaiti, ez genduan inork sudurrik latzitu, ez albora begiratu naskaturik.

Gelan da espetxean gosea izan zan, nagusi, gosea zan jaun bakarra eta gosek il bear genduan, alak egin genduzan gose ilten, iru illabeteko gose mardarikatua soñetik kentzen, Bilbo-ra ekarriak izan gintzazan arte.

Ogi koskorra. Mutilla ezeze, mutil da erdi be, bazana: Erramon Galartza, bilbotarra, "Diario de un Condenado"ren egillea.

Emoten euskuen ogi-koskorra eskutik aora eroten gendun da, ziolo jan, txitxirioen begira egon gaberik, ogetalau urrengoetan emongo euskun ogi txatal arte. Erramonek, ez, Erramon onek iru zati egiñik, iru jatorduetan izaten eban, ogia. Bere lagun gintzazanok, "nobilis bobilis" ezan eta, urrengo egunerarte ogiaren zain itxarobearran gintzazan.

Orman katurik, orman egoan arazan da nire aurrean izten ogia, biramon goizean gosaltzeko.

Turuta jo egizkunean lotarako, gau aretan bakesu izango gintzazala usterik, batzuk lentxoago bestetzuk geroago, loak artzen ginduzan, lo zurrak. Zenbat begirakada, zenbat so egite, zenbat jagiko ba nintzan ezpa nintzan, zenbat zirikaldi ogi ari buruz izan nebazanak, Jaungoikoak baka-





rrik daki. Baña, tira, lagunaren ogia zala ta, oben bideak betetu barik emoteak, eskerrik beroenak damotzadaz berrogetak urte geroago, Jaun Altsuari.

Beste bein baten P. Egilor etorrela apaltzea emotera ta, gelako atepak zabal irigik izan genduzan lez, aparia sakabanatzen egoan alderdi aretara niñoian ontzia arturik, tilliztak izan ziran, kuin-kuin bete eustan txoleta eta, lagunakana biurtu nintzan. Zazpi gosedun lagunok jatea egokiena izango zan, alan uste nik beintzat, ez neban baña indarririk, eta duintasunik besteai emoteko. Areik niri begira eta, ni burua jaso barik, ez nintzan gelditu eskuan neunkan txoletakoa amaitu arte. Lorik ederrena gau aretan egin neban.

Gosea nola egun batera il, ametzetan ametz eginik gure ondoko lagunak egunetan izan ziran. Gela aretako gosetiek zer egin ebanaren zera emen: Zazpiren ogia bateri emon, biar besteari, etzi urrengoari eta, olaxe danai. Ogia jaten eban ondo izaten zan, besteak ostera garrian prakak euki eziñik eta txandaren zai. Ogiatz barau egitea, ezin eben burutu.

Berantzakoa naiz edozelako miñen bat gauean nabaitu, ez zan aterik irigitzen. Olako une larrietarako, eta txixerako, baba zuridun txolet utsak geunkazan. Eta betetuten genduzanean...zer egin? Azpillek, saldea artzeko geunkazen azpilletara ustu bear barruan euki genduna, leiotik jaurti eta, biramon goizean inarraz da urez eriotzaren astunik gabeak garbitzen eben.

Tellatu-txapelpeko oñezkoen bideak garbitzen iñarduenean ontzi zikiñegaz barruan gengoan atepak noiz irigiko adi. Irigiten euskunean, ariñekeitant joan bear izaten genduan iroletara pixa ta kaka egitera, arpegia busti, ontziak garbitu, gelaratu eta ontzi txarri areitan akeita antzeko artzera. Zer janik izan ezarren, osasun bai genduan.

Eriotzara jausigaik beeko geletan gengoan, bat edo beste utsik, egunez espetxe barruan lanean ebiltzazen presoan lo tokitzat aukeratuak.

Danentat joten eben lo turuta, eta esibarrutian batera ta bestera ibiltzazenak be, geletara etorbearean ziran. Adi-adi izaten gintzazan ormatik ormatarako daunbadatxoak entzun al izateko.

Onein oñak gureak baño askeago izanik, ez genkian gai askoaz jabetzen ziran da, lotara egorten zirenanak, lenengo eginkusuna emen; Ormea jo ikubillagaz eriotzarik gau aretan izango zan, edo etzan, adirazoteko, batzuetan negar egitekoa, bestetzuatan nasaitxoago egotera, lo baketsu egitekorik iñoiz albiste onik. Dana ta guztia zan egoneziña.

Italiarrak joanik españarrak jabetu jakuzanean, baratzera atera ginduezan, goitik beraño arakatu, geunkana kendu eta, barrero bere barrura.

Diruz, ordulariz, atzaparretako eraztunez, idazkortz e.a. otzara andiak bete ebezen. Ain gintzazan askorik epe andia be izan eben alako araketaldirako, eta atzean begira izan ziranak naikoa eben zeregiñik atzaparren baratzeko lurra arrapatzen, eukazen gauzarik garrantzikoak lurpean estaltzen. Estaldu bai, aurkitu ez, emen bere erroiek irabazi.

Beste bein oñetako ederdun gudaria jo eben begiz, geroago baten, eskuz. Begiz jo ta eskuz kendu, eukazan oñetako enordez espartañez janzi eben gixago andia.

Gogoan izatekoa au bere. Lotan gengoanean oraindiño epaitu gaberik, alako zaindari bat gela batera sartu zan, lota egoanaren soñekoak arturik “amalau” baño arroago aldendu zan.

Atziloturik izan zan gixagoa zoraturik ebillan batera jo eta besteari itaundu, zer egin eta eban, kaltzonzillo utsik itxi eben da. Nagusien bateganaño iritxi izan zana ba dakit, zertan amaitu zanik eztakidarenarren.

Dueso-n barruratu ginduezan egunetara biurturik, kanariako gudariak izan genduzan esiaren inguru-ninguru nagusi.

Zalatarien alderuntz begiratzen eben leiotan, ziurtasun andirik etzegoan. Keriza, gizonirudien bat ikusten ebaneko, arein amorru zitalaren pozoi zitala berunez etorkigun geia barruraño. Nengoan gelara, berun-koskor bi sartu ebezen iñor zauritu barik.

Kotxor Larrinagan loturik egon da, Santander-go lurretara atxilotuta eroan eben. J. Mari nire erriki-deak, ezizen bi eukazan: Kotxor eta Txutxurrio.

Bideari emonik, astiro baño ezbazan be, Ama aberirik urrineratzen giñoiazanean, Villa Verde de Trucios, ala Truzio izan zan eztakit, nire bigarren lengusu Antonio Olasarri pre-soak zaintzen izan zalarik, Kotxor be an egoala onek esan eustan.

Askerik eta gazteturik elizanda inguruetan ebiltzazan Bilbora etorriko ziranerako gertakisunetan da, ikustera joan nintzakion. Milla txeraz da laztanez artu nindun, nire etxeoentzat ezer gura ba neban galdetu, burua zaintzeko ta ondo izateko ta ondo izateko aolkuak emon. Kotxor txoria baño bizkorrago ebillan ganeko egunen batean Bilbo alderuntz etorriko zanaren ametzez, ni burua makurturik Santander-ko bideetan non geldituko nintzan ez-nenkiala, beti ta beti aurrera.

Barrero bere Santoña-ra noakizue, Santoña-n Dueso-ra ango barriak azaltzera.

Gaua ilundurik lurrean lo-iskia egiteko etzunik gengoanean, zanko otsak ataurrean. Estutu eta larritu gintzazan zer etorkunaren begira ta, alako batean





espetxe zainaren abotsak giltzadun lotuari, aulan: amargarren ate ori iriki egidak. Eta eskuan ingurria ta besapean be zer edo zer ekarren idizildunak gau on esan bagerik, orrian idatzirik ekarrena irakutzen asi zan: Jose M^a Idur. Iruan...za,...ga?

-Ez, jauna; Jose Maria-rik eztozu, emen ez beintzat.

Eta orriari atzeldera begiraturik: Antonio Landajuela

-Sanjuelarik ez, baña Landajuela bai, Landajuela emen dozu esateaz

batean, zuritzen asi nintzan azken-ordua etorri jatelakoa.

Besapean eukana jaurti eustan da, barriz bere orriari begiratu barria eginik, Jose Maria Iruarri-zaga zan orriaren alde batean etorrena, eta bestean nirea; Antonio Landajuela.

Andaluziarra zan da, zertxo bait edariz ornitua, ezin eban itzik ebagi. Santoña-n Kotxorrek emon eutsan kebelarra

Zer errerik ez genduan da, kirrix-karraxka bi ateari emonik aldendu zanerako, erre-gogoa ta errebearra aspalditik geure-geureak ziran da, txondorrek aña ke edatzen genduan gela txiki piti aretan. Gaeko ordu illundutan gengozanarren, egun barriaren argitzea izan genduan.

Larrinagan egoan Kotxorek, berau zaintzen izan ziran espetxe zaindariakaz artu-emon andiak eukezan, da beste bein baten be, nagusi samarra zanak deitu nindun, Txutxurrio-ren izenean. Nire barri zarrrik onek ba ekian, Molaren alderdikoa-kaz ibillirik Agirreren aldera iges egiña nintzala ta besterik. Ondo artu nindun, berarenganako susmo txarrik ez izateko esan eustan.

Zer izan zan jazo zana? Eztakit. Idizila, egurra ma-killak gora ta bera, ezkerrera ta eskumara, txistuak eta oyuak danak batean ziran.

(Jarrantuko da)





Esteban Urkiaga Lauaxeta

(1905eko abuztuaren 3an jaiozan)



Lauaxeta pertsonaia ezaguna eta simbolikoa bihurtu da euskal kulturaren, literaturan batez bere. Jesuitetan ikasi eta intelektuala zan, irakurle andia, gaiñera. Ogibidez kazetaria, Bilbon ateraten zan Euzkadi egunkarian.

Lauaxeta Euzko Alderdi Jeltzalekoa izan zan, mitinari, izlari eta kazetari ezaguna abertzale eta euskalzaleen artean. Gerran Euzko-Gudarostea ornitzen, bearbada taldeak antolatzen edo prestatzen be akaso, eta gero Euzko-Gudarostearen Gudari aldizkariaren artezkari jardun eban. Abertzale sutsua, idazlea eta euskal idazleen auspoa izan zan, gure artean eta kultura ikuspegitik Pizkundea izenez ezagutzen dan aldian (1931-1936), II Errepublika garaian.

Gerra asi orduan fusilatu egin eben, eta orrek bere irudia anditu egin dau neurri baten.

Olerkari legez da ezagunena, Bide barrijak, 1931 eta Arrats-beran, 1935 liburuen bitartez. Olerkian barritzailea izan zan, gai, joera, iruditeria, izkuntza eta neurri barriak sartu ebalako bere idazlanetan.

Baiña antzerkia be idatzi eban, eta prosan be, kazetaritzaren bitartez batez be. Azken orretan, Euzkadi egunkariaren euskal atalaren artezkari alderdia batetik, eta berak idatzitako kazetalanen egille alderdia bestetik, bereiztu bearko litzatekez.

Egunkariaren bitartez, euskaldunak zirikatzan ebazan errian erriko kantu, ipuin, esaera eta abar bialtzeko. Bera barritzailea izanda be, euskal jatorriko tradiziñoari balio andia emoten eutsan, bere idazlanetan ikusten danez.

Testu bana ipiñiko dogu, poesian eta prosan.

MENDIGOXALIARENA

Basaldua' tar Kepa'ri

I

Mendi eze, ikurrin eder,
azke nai zaittut axian.
Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!
Mendi-bitxidior berdiok,
arin or duaz kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

Eta ixil dago arratsa
Euzkadi'ko lur-ganian.
Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

II

Gaztedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samíñez
urduri dabil errija.
Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.

Or duan ozte-aldean
aberri-minez kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

III

Gazte orreik goruntz duaz
abesti eta ikurriñez.
Lañuan baño tiro otsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean,
Amar gasteren lerdena
itza-barik lurrean!



ZIRIKA

Bizkaiko jaurleri ponpoxa etorri zan unean gauza guztiak arteztuko zirala-ta pozik gengoan. Aren itzak entzuki itxaropena biotzeratu jakun! Baiña itzak ederrak diran neurrian bakoitxaren ekintzak ez dira egoten. Beti ez beintzat. Eta Sevilla orri be, beste orrenbeste jazo jako.

Asmo onak ekarri ebazan airen, ezerezean geratu dira. Garatzai aurrerakadea egingo eutsela? Leen baiño beerago dagoz. Bizkaiko gizerailketak eta is-kilu-otsak deuseztuko ebazala? Iñoiz baiño erailketa geiago dakusgu.

Orri esaten jako: frakasua. Eta frakasau daben gizonak zer egin bear leukien, antxiñatik dakigu: jaur-laltza itxi eta etorri ziran bidetik atzera joan. Odol lar isuri daroe Bizkaiko semeak bakez egoteko.

Gaizkin bat ez dabe atxilotuten, lapurrak eurek gurako leukien baiño askatasun ederragoz ibili dabiltz eta egunero ogeta amar mila lapurketa egin daroez. Garatz arazoak ikastera doa Sevilla jauna, geu poz-tuko gara eta.

Nok esan dau? Nok ez dau esan? Eusko Ekintza-ko abertzaleak izan ei dira Sestaoko gaizkiñak. Ori diñoanari miña ebagiko geunskio. Oindiño ez dogu eusko izatea zein dan galdu.

Espainiar guztien leloa ikasi dabe Sestaoko gaizkiñak be: iñori errua emon eta kitu. Baiña olako

gaiztakeriak egiteko eusko odola barik espaiñiarren aierra euki bear da. Guzurrrik ez dogu siñistuten, bai?, eta oraingo guzur au bere ez. Espaiñiarrak izan dira gaiztakeria orren egilleak.

Neure bizian jazo ez jatana jazo jat oraingoan. -Zer jazo jatzu, ba? -norbaitek itaunduko deust. -Ama il jatzu, ala? -Ez olakorik, Goikoari eskerrak. -Milla laurlekoko ingia galdu dozu? -Neuri ez jat milla laurlekoko ingirik galtzen, ez daukadalako. Zer dan? Katxeau egin nauela. Sekulan ez dot sentidu olakorik, baiña igandean asaltoko batek esan eustan: -Mesedez.

Eta goitik beeraino igortzi ninduan. Aldean zer neukan? Euskadiko ikurrintxu bat, iru laurleko, ingi zati batzuk eta arkatza. Besterik ezer ez.

Jaupari batek emon deustan ingitxua arin irakurri dot. Gazteizen izango dan Gran Asamblea de Cuestiones Socialesera, joateko deia zan. Ez dot barre gitxi egin ingi ori dala eta ez dala. Ze arraio (olantxe, arraio) gura ete dabe jaupari, kannonigu eta garaitiko orreek? Lau edo bost itzaldi eder egin ezkeran gizarteko arazoak arteztuta dagozala uste dabe? Bai zera. Eusko Langilleen Alkartasunari eragozpenak jarri eutsezan gizon orreek, itzaldi luzeak, eta berbaldi samurrak egingo dabez, baiña ezer ez.

GIDA-TXAKURRAK



1- ¿Ba al dakizu zer egin bear dozun gida-txakur bategaz ?

-¡Entzun berari !

2- Eup! gida-txakur bat naz eta erakutsi gure deutzut zelan jokatu bear dozun nire usaba itsuakin aurkitzen nauzunean.

3- Aurren aurrena, jakin egizu langille txakurra nazala, eta ez maskota edo jostagai bat.

Zenbat eta gitxiago ni ezagutu, ainbat eta obeto nire jaubearrentzat eta nitzako be bai.

4- Nire portaera ta artuemona guztiz ezbar-diñak dira beste txakurren ondoan eta adeitasunez artu bear nabe nire nausi itsuarekiko gidatze ta laguntza zintzo eginkizunetan.

5- Mesedez ez nagizu ikutu ta ez laztandu, lanean nabillen bitartean; obeto esanda, arnes jantziagaz ikusten nauzunean. Ori eginik zabartu nagikezulako ta nik sekulan be ezin neike utsik egin.

6- Artezena leiteke, jaramonik ez egitea. Ez zara bildurtu bear orregaitk. Gida txakurrok ondo ikasita gagoz eta sekulan be ez deutzugu inólako kalterik egingo.

7- Ori bai! Beste txakurren bategaz ba zatoz, zaindu egizu arazoan bat gerta ez dadin nire ondolik edo nire nausi itsuaren albotik igarotzean.

8- Mesedez ez eidazu mizkeri, gozoki ta janaririk ekarri. Nire usaba itsua arduratuten da ondo asko orretaz.

Ederto jaten dot eta badakit noz dan jateko ordua.

9- Ni lango gida-txakurregaz dagoan itsu batengana ba zoaz, berba eiozu berari artezean eta ez niri.

10- Gida-txakurregaz dagon itsuen batek laguntza eskatuten ba deutzu, urreratu zaitez beragana eskumaldetik, ni ezker aldean eukita.

11- Geroago, aginduko daust zuri jarraituteko, edo eskatuko deutzu emon dagiozun ezkerreko ukondoa. Une orretan keñu baten bidez aituzoko daust aske gelditzen nazala.

12- Gida-txakurdun itsu batek norabideari buruz itanduten ba deutzu, esan egiozu, argi ta garbi norantza joan bear dan, jakin gura dauan lekura elduteko.

13- Ez ibilli korrika ta ez oratu besotik, gida-txakurregaz dagon itsuari, aurretik ezebe esanbarik. Ez eta ikutu nire arnes- jantzia, berau laguntzen dodan nire nausi itsuarentzat dalako bakarrik.

14- Gida-txakurrok ba doguz txisa ta kaka egiteko leku ta ordu aukeratuak.

15- Gida-txakurra nazan aldetik, oituta nago edozein garraio motan ibilten, nausi itsuaren oñetan itxunda, bidelariari iñolako arazorik sortu barik.

16- Jarduera gogor baten bidez gida-txakurrok oituta gagoz ta gai gara sartu ta egoteko bakoitza bere nausien ondoan nonaiko leku, osasunetxe, salerostoki, jatetxe, kafetegi, zinema, ikastoki ta edo ta lantokitan... dagoan gizakiari iñolango kalterik edo oztoporik ezarri barik.

17- Gida-txakur-
ren jabeak gai
dira, aldean dau-
kiezan bitartean,
dabiltzan lantokietan
eginbearrak
zuzen osatzen. Ikaskizunen
arabera gida-txakurrak sekula be
eztira, bastarrik baster, usmetan
ibilten, bai ordea, nausien oñetan
egoten.

Gida-txakurrek euren nagusiek aña
eskubide daukie, artzeko edozein leku
publikoan.

18- ¿Lagunduko ote daustazu guzti au
zabalduten?

Klaudio Barroeta
(*Euskeratuta*)




IZADIA ZAINDU

EUSKAL TOKI-IZENAK

MUNDUAN eta

EUSKAL EDESTIA IV



7.- MUNDU ZABALEAN, EUSKAL TOKI-IZENAK ETA ITZAK.

Toki Izenaren⁽¹⁾ zentzua azaltzeko, gure gogarketetan garrantzi handian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarri eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan Buranu = Urnammu, zeru guz-

tia URA izan zala gogoratzen ziralako: URA = UR+ANU = Agua del cielo.

7.1. -Afrika, Asia ta Europan, erreka, mendi, toki ta erri izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal itz asko dira. Orain jakintsuak dabizena argitzen, eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak sakonak diralako.

Europan, erreka askoren izenak, itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera, edo euren oiñarriaren sorburuzko itz bardiñakaz bai beintzat.

(1)Toki-izenaren=topònimos.

Susterrezko itz bat “IS” adizkia⁽²⁾ da: “Noruegatik asi ta Italiaraino, Espainatik Errusiaraino, ta Bretaña Aunditik Balkanes”enerainoko 200 errekatan baiño geiagotan aurkitu dira-nak.

Adibidez: Noruegan Iselfjorden edo Isa Italian. Errusian Isainka edo Ieslà Lituanian. Txekiako Errepublikan Jizera edo Ijssel Beko Errietan⁽³⁾. Euskeran Iz berbea S lez esanda: URA edo UR lasterra esangura dau.

Izen itzak, era bardiñetan agertzen dira ur (aur), var (ver), sal (salm) edo al (alm). Ur itzak ur geza⁽⁴⁾ edo ur gazi⁽⁵⁾ esangura dau, eta URA ur tira edo ur lasterra⁽⁶⁾.

AL eta SAL itzenezako be, esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko Izkuntza aldi baten, oso zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak, beste ainbesteen artean, adibidez: Noruegan URULA, Bretaña Aundian

IRWELL, Beljikan OURTHE, Alemanian AUERBACH, UR-BACH, AURACH, Austrian IRRSEE, Frantzian lenago UROFIA izan zana eta gaur AROFFE eta HURIEL, espainian URURA ta UROLA, Polonian URWIS, Errusian URA eta abar.

Alemania´n VAR adizkia daukien izenak: Warne, Werre, Warmeno, Warme Aue dira.

SAL adizkia dauken izenak: Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika).

Eta AL adizkiarekin: Aller, Alm, bi Alme, bata Almana eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz.

Erdi Ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantes eta abar.

Lenagoko izkuntzaren izenak be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, errekek edo lurraldeak euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.



(2) Adizkia=elementoberbal.(3)Beko-errietan=-Paises-Bajos. (4) Ur-geza = agua dulce. (5)Ur gazi=agua salada. (6)Urlasterra= corriente de agua.

Erdi Ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak IBERUS esan eutsoen Ebro ibaiari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko Itsasoan bota arte, danak euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, euskeraz IBAI errekea dala esateko eta IBARRA, errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan IBAR zelaiari.

Guadalajarako erria, Segobia, Soria, Zaragoza⁽¹⁾, Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena ARRIAKA izan zan.

Erromatarrak etorrita, Toledotik aldatzen zan Zaragoza Meridaraiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban, eta Mauritarrak etorrita Guad ilhijiarahren (euren izkuntzan arriaren erreka esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz eza-gutzen doguna.

Ernest Försteman Alemanak (1.822-1.906) Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn gizaldi erdian toki izenen azterketan ibili zala: Errekaren auziñako izenak, Leunkatubako⁽²⁾ Bitxiak zirala esaten eban.

7.2.- Vennemanntar Theo, germaniar ele jakintzaren maixua (catedratico), Fostertar Peter, Kanbridgesgo Ikastetxe Nagusian genetikaren irakaslea ta Hameltar Elisabeth berrien idaz-leak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babieraren goi aldian Ebrach ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurrera-suago basalde zabal, abartsu edo ta oiantsua daukana eta Erdi Aroan Eberesperch edo Epaesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan leike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu lez artuta, Ebersberg izena Ibai esan gure daualako eta apur bat estututa Ibai Ibai ipini eutsoen azkeneko ach ori euren Ego aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten IBAI esan gure daualako.

Frantzian, izenak gaiñera ainbat eber´ekin asten dira, nai ta beste izkuntz senditik etorrita doiñu ezberdiñak euki.

A ta guzti, ainbat: Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdun, Avricourt, Avrolle, Yvre eta ainbat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Frantzezez ez dagoz izen orreik, (nai ta Aleman izkuntzan eber basurdea izan) basurdearen izenagaz elkartuko dauzanik, basurdea euren izkuntzan sanglier esaten dalako.

Orregaitik eber izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo IBAIA´ren adi-muga⁽³⁾ daukala.



(1) Zaragoza = Bere antziñako izena Zalduba zan. (2) Leunkatu-bako = sin pulir. (3) Adi-muga = definición.



Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpen-duta egon, Renfrewtar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: Indojermanoak edo erri guztien artean eza-gutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europara etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak zirala, eurokaz Europaren Neolitikoa egokituta.

Zatarain´tar Anbrosio aipatu bear dot emen, Euskerea-Aleman-Euskeraz itzultzeko egin eban DUDEN iztegia, azkeneko orrazketak berak ezin ebazalako emon, arrigarrizko lan eder ori ametsezko bidean geratu dalako.

Berak aurkeztu eustan itzezko zerrenda aundi bat: idatz eta esan bardiñak euki ebezan Aleman ta Euskerazko itzak, eta damu naz aren bir idazki bat orain ez eukitea.

7.3.– Krutwigtar Federikok esaten dauana.

Krutwigtar Federikok esaten dau, Europara indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta

Asiaren zati batean, jendekuntz aundi baten, oiñarri bateko izkuntz ezberdiñakaz mintzatzen zirala eta nastu egingo zirala, agertu ziran erri lapur edo sartzailleakaz⁽¹⁾.

Krutwigek, alkarganatu⁽²⁾ egiten dauz Dordoña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya⁽³⁾, Sumeria edo ta Babiloniakoakaz.

7.4.– Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

Italian, Euskerazko toki izenak: Liguria (Genoba inguruan, IIIIn. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno eta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erromaren Ego Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko erria, (len euskerazko orde izenak Erdi Ugarte onein tokietan dagozenak eta Asturias ta Galizian batez be). Guztiak Sizilia ta Alpesetan dagozenak.

Alpe itza, Euskerazko Arpe (Arpe, aizpe = cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatic datorrena da.

(1)Sartzailleak=invadores.(2) Alkar-ganatu = relacio-nar. (3)Euren ariñagoko izena Ilion izan zan Euskeraz ili = iri, Uria esan gura dau.

Alpeseko toki izenak AOSTAN: Artavoz: arta = roca (arkaitz), naba = planicie, otz=fin / Ayas: aia = vertiente, as = de atrás / Arbelei: arbel = pizarra (ar-bel), ei = punta (egi). / Arieta: Arrieta (arri tokia) / Arroil: garganta montañosa (euskeraz bardin)/ Arrobi, Arpe, Aran, Arpeta: nido de aguilá (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (euskeraz Valle=Aran da)/ Gane: cima (euskeraz bardiñ esaten da) / Lesache, Lessona, Lezetta: sima (euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira) / Loy: loi (euskeraz: barro, tierra hùmeda) / Orio: Gipuzkoako errekea bezala / Oyace: Oiane (selva) / Oren: Orein (ciervo) / eta abar.

7.5. –Lonbardian: Izen asko dira ATE´an amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: puerta, paso esan gura dabe. / Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate, eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elexpurementzat: Iru lurralde dagoz euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: Piamonteren Iparraldea (italieraz PIAMONTE=ARPE=al pie de la montaña, Euskeraren antzera Auñamendi lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineosen Euskerazko izena. Lombardia eta Aosta (Milan eta Milaneko Iparraldean) eta Suizan, Ticino edo Tesinoko erri aldean.

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: Azasca, Andrate, Aranno, Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena, eta abar.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.013´an Urtarrilla´ren 15´ean



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

			1	2		6	3	7
				5			4	8
		7				5		
7			5				1	
		6				8		
	4				7			2
		1				2		
2	3			6				
6	7	9		8	3			

6	7	9	2	8	3	1	5	4
2	3	5	4	6	1	7	8	9
4	8	1	9	7	5	2	6	3
5	4	8	6	1	7	3	9	2
1	9	6	3	4	2	8	7	5
7	2	3	5	9	8	4	1	6
9	6	7	8	3	4	5	2	1
3	1	2	7	5	6	9	4	8
8	5	4	1	2	9	6	3	7

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Ameriketara joan nintzan
zentimorik gabe
andik etorri nintzan maitia
bost milioen jabe.

Txin, txin, txin, txin,
diruaren otsa,
arexek ematen dit maitia
biotzian poza. (Bis)

Elantxobe

